## 4. EBALUAKETA

lehen ariketa

**Hizkuntza**

**Espazioaren neurketa**

**Goi maila**




Hona hemen bost erranaldi. Hauetatik bi zuzenak dira. Zuri doakizu erranaldi zuzenen markatzea gurutze baten bidez.

- Maiderrek arkatza eskuineko eskuan dauka.
- Maiderrek liburua ezkerreko eskuan dauka.
- Peiok liburua ezkerreko eskuan dauka.
- Maiderrek liburua eskuineko eskuan dauka.
- Peiok arkatza ezkerreko eskuan dauka.

2. ariketa

**Hizkuntza**

**Espazioaren lantzea**

Koordenada zuzenak eman itzazu ondoko gauzen ongi kokatzeko.

Planoan, mahaia .................. -n kokatua da, kadira...................... -n kokatua da, eta atea .................. -n kokatua da.

**Erantzunak azpiko planoaren A1, A2, A3, A4, B1, B2, B3, B4... koordenada hauetan dituzu.**





3. ariketa

**Hizkuntza**

**Espazioaren lantzea**

Gurutzeak eman itzazu bi sarbideko taulan, Baionako planoan ageri diren zenbait lekuren erakusteko :

- Herriko etxea
- Paulmy ibilbidea
- Gaztelu berria
- Boufflers ibilbidea




| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | | | | | | | | | |
| B | | | | | | | | | |
| C | | | | | | | | | |
| D | | | | | | | | | |
| E | | | | | | | | | |
| F | | | | | | | | | |
| G | | | | | | | | | |

## 5. JAKINTASUNA ETA HIZKUNTZ TAULAK

### ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK

**1 Espazioaren eta denboraren oinarrizko kontzeptuen eraikuntza**
(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 88. or.).

| | |
|---|---|
| Bere burua, iragan edo etorkizun hurbilean koka dezake eta gero aitzinatuz bezala, urrunagoko iraganean eta etorkizunean. | ✏ ✏ ✏ |
| Urtea kudeatzen edo antolatzen duten egutegien ezagutza egiten du (urtea, ikasturtea, sasoinen zikloa...). | ✏ ✏ |
| Bere espazio ezagunaren irudikapen sinpleen egiten hasten da eta gero experimentaziotik urrunduak dauden espazio abstratuagoak kondutan hartzen ditu ; bere burua horietan okatzen ahal du. | ✏ ✏ |

**2 Metodologia jakintasunak**
(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 89-91 or.)

| | |
|---|---|
| Notizietan eta liburuxketan dauden argitasunen erabiltzeko gai da. | ✏ ✏ |

### ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN HIZKUNTZA JAKINTASUNAK

**1 Ahozko hizkuntza erabili**
(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 94. or.).

| | |
|---|---|
| Bere ekoizpenen, jarreren eta ekimenen aipatzeko, haurrak bere solasaldia eskema logiko batean sartu behar du. | ✏ ✏ ✏ |
| Haurrak, plantan hitzegiteko eta joskera osatuagoaren erabiltzeko gai izan behar du. | ✏ ✏ ✏ |

**2 Hizkuntzaren menperatzeko jakitateak**
(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 100-101. or.).

| | |
|---|---|
| **Hiztegia :** haurrak, kontestuaren arabera, hitz baten erranahi zehatza bereizi behar du. | ✏ ✏ ✏ |
| **Ortografia** : testu bat hutsik egin gabe kopiatu behar du. | ✏ ✏ |

### ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN ERAKAS ALORRETAKO JAKINTASUNAK

**1 Matematika/neurriak**
(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 111. or.).

| | |
|---|---|
| Memento batzuen ezagutzeko edo iraunaldien kalkulatzeko egutegia eta ordulari digitala edo berdin orratzekilakoa erabiltzen jakin behar du. | ✏ |

**2 Munduari ohartu** (ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 112. or.).

| | |
|---|---|
| Urrats kronologikoen ordenatzen hasten da urruneko iragana bereiziz. Horretarako, zibilizazio elementu batzuetatik eta berak belaunaldiez duen esperientziatik abiatzen da. | ✏ ✏ ✏ ✏ |

| | |
|---|---|
| Iraganari dagokion informazio bat identifikatzen du kronologia batean kokatuz (lehen, gero, denbora berean). | ✏ ✏ ✏ ✏ |
| Plano sinple bat bere argibideekin eraikitzen hasteko eta baliatzeko gai izan behar du. Jendeei buruzko geografia eta geografia fisikoari dagozkien elementu batzuen hiztegi zehatzaren erabiltzeko ere bai (auzoa, hiria, herria ; baserria ; eguraldia ; zelaia, mendia ; etxaldea, lantegia, saltegia...). | ✏ |
| Ikertu dituen ingurunetako elementu zenbait ezagutzen ditu aireko argazkietan eta planoetan. | ✏ |
| Mapetan, lur bolan edo planisfero batean kokatzen ditu ikertu dituen inguruneak. | ✏ |

**HIZKUNTZA EDUKIAK**

| GRAMATIKA EDUKIAK | ADIBIDEAK |
|---|---|
| (-ko) leku inesiboa | Gela handi**ko** altzaria.<br>Gela ttipi**ko** mahaia.<br>Hiri barne**ko** eliza. |
| *Egon* aditz trinkoa indikatiboan | Non dago Maider ?<br>Maider atearen gibelean dago.<br>Jon eta Ximun arbelaren azpian daude. |
| - (a) N inesiboa leku adberbioekin | Patxi eskuinean dago.<br>Mahaia erdian dago. |

| HIZTEGI EDUKIAK | |
|---|---|
| Lekuaren adierazteko hiztegia | **Eskuinean, ezkerrean, gibelean, ondoan, gainean, azpian, sahetsean, bazterrean...** |
| Ikasgela barneari dagokion hiztegia | **Mahaia, kadira, telebista, ordenagailua, liliontzia, leihoa, atea, arbela...** |
| Ikastetxeari dagokion hiztegia | **Gela handia, gela ttipia, jostalekua, komunak, pasa-bidea...** |
| Auzo bati edo herriari dagokion hiztegia | **Eliza, herriko etxea, pizina, kiroldegia, kirol zelaia, saltegia, liburutegia...** |

**Ustiapen pedagogikoaren edukia :** Amaia Ameztoi, Pantxika Martin-Lesgourgues, Pantxo Mitxelena, Janine Urruti irakasleak eta Yves Haran pedagogia aholkularia.

**Garapena eta idazketa :** Mixel Ernaga eta Jon Irazola (IKAS).

**Marrazkiak :** Marko Armspach.

**Argitalpenaren ardura :** Aines Dufau (IKAS).

**Berme zientifikoa eta pedagogikoa :** Piarres Charritton eta Jean-Louis Davant (Euskaltzaindia) eta Hezkuntza nazionaleko ikuskaritza.

*IKASek eskertzen ditu*

**Ustiapen pedagogikoaren edukia ekarri dutenak :**
Amaia Ameztoi, Pantxika Martin-Lesgourgues, Pantxo Mitxelena, Janine Urruti irakasleak eta Yves Haran pedagogia aholkularia.

Piarres Charritton eta Jean-Louis Davant euskaltzainak.

**Irudi, argazki edo argazki kopiak eman dituztenak :**
Baionako euskal erakustokia, Uztaritzeko Ameztoi familia, Seaska, Bidaxuneko Michel Pehau argazkilaria, Dominique Harluxet, Laborde-Peyré familia, Biarritzeko herriko etxeko artxiboak, Bob Edme argazkilaria, Jean-Claude Broca argazkilaria, Euskal kultur erakundea, Dubertrand argazkilaria, Gara egunkaria, Electrolux motoculture SAS, Marie-Claire Larramendi, Nelson Cazeils idazlea, Greenpeace, Pariseko ospitaleak, Baionako ospitalea, BAB hiri elkargoa, Kanboko Ema argazki denda eta Alain Martineau.

**Argitaletxea :** IKAS euskal pedagogia zerbitzua. Euskal kulturaren sustengatzeko sindikatak, Pirineo Atlantiketako kontseilu nagusiak, Akitaniako kontseiluak eta Frantziako Hezkuntza ministerioak diruz lagundu elkartea. Akitaniako CRDPren partaidea (1995.12.11ko hitzarmena).

**IKAS elkarteburua :** Mixel Jorajuria.

**IKASeko argitalpen batzordekideak :** Miren Ameztoi, Elixabet Andueza, Nelly Challet, Guy Copentipi, Xan Goenaga, Irene Ithursarri, Mixel Jorajuria, Maite Oxandabaratz, Alazne Petuya irakasleak eta pedagogia arduradunak, Jakes Sarraillet euskara ikuskaritza kargudun errektorearen kondu, Akitaniako CRDPko zuzendaria, Akademiako ikuskaria eta Departamenduko kontseilu nagusiko hizkuntza politikako zerbitzuburua.

**IKASeko talde profesionala :** Aines Dufau zuzendaria, Xan Othaburu dokumentalista, Mixel Ernaga eta Jon Irazola ikasmaterialgintzako proiektu kudeatzaileak, Xabier Elizondo informazio eta komunikazio teknologia berrietako animatzailea.